2026ko azaroaren 25a - Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

EZ AHAZTUAK, EZTA IKUSEZINAK ERE

Aurten ere, azaroaren 25ean, Nafarroako toki eta lurralde erakundeok ahotsa altxatu dugu emakumeen aurka gauzatzen diren indarkeria matxista mota guztiak gaitzesteko. Indarkeriarik gabeko gizarte bat aldarrikatzen dugu, non emakume guztiek, adina edozein dela ere, askatasunez, autonomiaz, duintasunez eta beren eskubideen berme osoz bizi ahalko diren.

Aurten, sozialki ikusezin bihurtutako errealitate batean jarriko dugu arreta: **adineko emakumeen aurkako indarkeria matxista**. "**EZ AHAZTUAK, EZTA IKUSEZINAK ERE**" lelopean, azpimarratu nahi dugu indarkeria matxistak adineko emakumeei ere eragiten diela. Indarkeria bizitzako etapa guztietan dago presente, eta areagotu egin daiteke etapa aurreratuetan eta mendekotasun-egoeretan. Ez da inola ere kontu pribatutzat hartu behar, beste belaunaldi baten kontutzat edo iraupen luzeko harremanetan jasan beharrekotzat.

Emakumeen aurkako indarkeriaren egiturazko izaera genero-desberdintasun sozialetan oinarritzen da, eta indarkeria fisiko, psikologiko, sozial, sexual eta ekonomiko gisa agertzen da. Adineko emakumeen kasuan, indarkeria adinarekin gurutzatzen da, eta horrek zaildu egin ditzake detekzioa eta esku-hartzea. Mendekotasun ekonomikoa, kolektibo gisa ikusezin bihurtzea, laguntza-sarerik eza, indarkeriaren normalizazioa, isiltasuna, isolamendua, indarkeria estetikoa, zaintza gainkarga, arrakala digitala edo erasotzailearekin luzaroan bizitzea oztopo izan daitezke indarkeria aitortzeko eta baliabideak eskuratzeko.

Adineko emakumeentzat, bikote-harremana indarkeria areagotu ohi den espazioetako bat da. Indarkeriazko harremanak bizi izan dituzte denbora luzez, baita hamarkadetan ere, eta horrek eragina du haien osasun emozional eta fisikoan. Indarkeriaren normalizazioak eta ohitzeak etsipena eragiten du emakume askorengan, eta zailtasunak areagotzen ditu irteera-prozesua hasteko. Zailtasun horiek sozialak eta egiturazkoak ere badira: areagotu egiten dira adineko emakumeek jasaten duten ikusezintasunaren eta infantilizazioaren ondorioz, eta eragina dute erabakiak hartzeko autonomian. Ez da ahaztu behar emakume horiek direla, gehienbat eta historikoki, zaintza-lanak egiten dituztenak, kasu askotan haien erasotzaileak zaintzen dituzte, edota, haien burua indarkeria egoeran jarriz.

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak egindako "65 urtetik gorako emakumeak, genero-indarkeriaren biktimak" azterlanaren arabera, 65 urtetik gorako emakumeen % 5ek indarkeria fisikoa jasan du bizitzan zehar bikotekideren baten eskutik, % 2,9k indarkeria sexuala jasan du eta % 8,8k indarkeria ekonomikoa. Emakumeen % 40k 40 urte baino gehiagoz jasan zuen indarkeria, eta % 27k 20 eta 30 urte artean. Datu horiek bi errealitate azaleratzen dituzte: alde batetik, adineko emakumeen aurkako indarkeria dagoela, eta, bestetik, indarkeria hori aitortzeko zailtasunak daudela, baita inguratzen duen isiltasuna eta ikusezintasuna ere.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako tokiko eta lurraldeko erakundeetatik konpromiso hauek hartzen ditugu:

1. **Adineko emakumeen aurkako indarkeria matxista ikusaraztea**, politika publikoetatik aitortuz, aurre-hartuz eta artatuz beharreko errealitate espezifiko gisa.
2. **Indarkeriaren eta adinari zein matxismoari lotutako estereotipoen normalizazioaren aurka borrokatzea**, adineko emakumeen esperientziak ikusezin bihurtzen baitituzte beren bizitzari buruzko erabakiak hartzeko gaitasuna zalantzan jartzen baitute.
3. Detekzioa eta prebentzioa hobetzea, gizarte-zerbitzuetako, osasuneko, poliziako, justiziako, berdintasuneko eta adineko emakumeei arreta emateko beste espazio batzuetako profesionalen prestakuntza eta sentsibilizazioa indartuz.
4. **Bermatzea arreta eta babeserako baliabide eta zerbitzuetarako sarbidea**, lurralde-aniztasuna kontuan hartuta eta autonomia, mendekotasun, desgaitasun, gizarte-isolamendu edo eten digitalaren egoera desberdinetara egokituta.
5. **Sare komunitarioak eta laguntza-sareak indartzea**, familiak, elkarteak, adinekoen zentroak, profesionalak eta herritarrak inplikatuz indarkeria matxisten detekzioan, sentsibilizazioan eta prebentzioan.
6. **Adineko emakumeei entzutea eta ahotsa ematea**, haien esperientziak, beharrak eta proposamenak politika publikoen diseinuan txertatuz, intersekzionalitatea kontuan hartuta eta soilik biktima gisa kokatzen dituzten erantzun paternalistak saihestuz.
7. **Politika publiko feministak, integralak eta koordinatuak bultzatzen jarraitzea**, emakume guztiei, beren bizitzako etapa guztietan, indarkeria matxistarik gabe bizitzeko eskubidea bermatzeko.

Azaroaren 25ean, herritar guztiak gonbidatzen ditugu adineko emakumeek gizarteari egiten dioten ekarpena aitortzera, indarkeria matxistak salatzeko guneak sustatzera eta, bereziki, adineko emakumeek jasaten dituzten indarkeria espezifikoak ikusaraztera. Konpromiso kolektiboaren bidez bakarrik lortu ahal izango dugu emakumeen aurkako indarkeria-mota bakar bat ere lekurik ez duen gizarte bat.

25 de noviembre de 2026 - Día Internacional contra la Violencia hacia las mujeres

NI OLVIDADAS, NI INVISIBILIZADAS

De nuevo, un 25 de noviembre, las entidades locales y territoriales de Navarra alzamos la voz para condenar todas las formas de violencia machista que se ejercen contra las mujeres. Reivindicamos una sociedad libre de violencias, en la que todas las mujeres, independientemente de su edad, puedan vivir con libertad, autonomía, dignidad y plena garantía de sus derechos.

Este año ponemos el foco en una realidad socialmente invisibilizada: **la violencia machista contra las mujeres mayores**. Bajo el lema "**NI OLVIDADAS, NI INVISIBILIZADAS**", queremos subrayar que la violencia machista también afecta a las mujeres mayores. La violencia está presente en todas las etapas de la vida, pudiendo intensificarse en etapas avanzadas y ante situaciones de dependencia. En ningún caso debe considerarse una cuestión privada, propia de otra generación o que haya que soportar en relaciones de larga duración.

El carácter estructural de la violencia contra las mujeres se basa en las desigualdades sociales de género y se manifiesta en forma de violencia física, psicológica, social, sexual y económica. En el caso de las mujeres mayores, la violencia intersecciona con la edad, derivando en situaciones específicas que pueden dificultar su detección e intervención. La dependencia económica, la invisibilización como colectivo, la falta de redes de apoyo, la normalización de la violencia, el silencio, el aislamiento, la violencia estética, la sobrecarga de cuidados, la brecha digital o la convivencia prolongada con el agresor pueden convertirse en obstáculos para reconocer la violencia y acceder a recursos.

En mujeres mayores, la relación de pareja es uno de los espacios donde la violencia suele agravarse. Viven relaciones de violencia durante un periodo particularmente largo, incluso décadas, y esto afecta a su salud emocional y física. La normalización y habituación a la violencia deriva en la resignación de muchas mujeres, aumentando las dificultades para iniciar el proceso de salida. Estas dificultades son, también, sociales y estructurales: se intensifican debido a la invisibilización e infantilización que sufren las mujeres mayores, afectando a su autonomía en la toma de decisiones. Sin olvidar que son estas mujeres las que sostienen mayoritariamente e históricamente los cuidados, en muchos casos cuidando de sus agresores o exponiéndose a situaciones de violencia como cuidadoras.

Según el "Estudio sobre las mujeres mayores de 65 años víctimas de violencia de género" elaborado por la Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género, el 5 % de las mujeres mayores de 65 años ha sufrido violencia física por parte de alguna pareja a lo largo de su vida, mientras que el 2,9 % ha sufrido violencia sexual y el 8,8 % violencia económica. El 40 % de las mujeres había sufrido violencia durante más de 40 años y el 27 % entre 20 y 30 años. Estos datos ponen de manifiesto dos realidades: por un lado, la existencia de la violencia contra las mujeres mayores y, por otro, las dificultades para reconocerla, junto con el silencio y la invisibilización que la rodean.

Por ello, desde las entidades locales y territoriales de Navarra nos comprometemos a:

1. **Visibilizar la violencia machista contra las mujeres mayores** como una realidad específica que debe ser reconocida, prevenida y atendida desde las políticas públicas.

2. **Combatir la normalización de la violencia y los estereotipos edadistas y machistas** que invisibilizan las experiencias de las mujeres mayores o cuestionan su capacidad para tomar decisiones sobre sus propias vidas.
3. **Mejorar la detección y prevención**, reforzando la formación y sensibilización de profesionales de los ámbitos de servicios sociales, salud, policía, justicia, igualdad y otros espacios de atención a las mujeres mayores.
4. **Garantizar el acceso a recursos y servicios de atención y protección**, atendiendo a la diversidad territorial y adaptándolos a las diferentes situaciones de autonomía, dependencia, discapacidad, aislamiento social o brecha digital.
5. **Fortalecer las redes comunitarias y de apoyo**, implicando a familias, asociaciones, centros de personas mayores, profesionales y ciudadanía en la detección, sensibilización y prevención de las violencias machistas.
6. **Escuchar y dar voz a las mujeres mayores**, incorporando sus experiencias, necesidades y propuestas al diseño de las políticas públicas, teniendo en cuenta la interseccionalidad y evitando respuestas paternalistas que las sitúen únicamente como víctimas.
7. **Seguir impulsando políticas públicas feministas, integrales y coordinadas** que garanticen a todas las mujeres, en todas las etapas de su vida, el derecho a vivir libres de violencia machista.

En este 25 de noviembre, invitamos a toda la ciudadanía a reconocer la aportación de las mujeres mayores a la sociedad, a promover espacios de denuncia de las violencias machistas y, especialmente, a visibilizar las violencias específicas que viven las mujeres mayores. Sólo a través del compromiso colectivo podremos conseguir una sociedad en la que no tenga cabida ningún tipo de violencia contra las mujeres.